

NATXO MONTERO

Lugorri utzitakoaren sentipena

Maitzaren 14an *Barbecho* dantzan garaikidearen aurrestreinaldia eskaini zigun Natxo Montero bilbotarrak, Arriaga Antzokian. Harekin Laia Cabrera antzezle eta dantzari kataluniarra aritu da sormen prozesua bera ardatz duen obra honetan. Gelatxoak programak lagundu du. Ekainaren 14an estreinatuko da.

| MYRIAM GARZIA |

Nolatan *Barbecho*?

Carni di prima qualità lanarekin aritu naiz aurreko bi urteetan. Argentina, Kolonbia eta Hego Korean erakusteko aukera izan dugu, aldiz, Euskal Herrian gutxitan programatu gaituzte... Lugorri egoeran nengoela sentitzen nuen, aldaketa asko etortzeko prest baina era berean ez nuen nire burua behartu nahi. Desorekan sentitzen nintzen, bakarrik, ideiak ez ziren dantzatik etorritakoak, maskarak, normalean erabiltzen dudana arropa... materiala banuen baina inolako antolamendurik gabe.

Noiz sortu zen Laia Cabrerarekin lan egiteko aukera?

Antzezlea bada ere, gustuko nuen bere gorputza gestioatzeko modua eta elkarrekin lan egitea proposatua. Bartzelonan elkartu ginen hamar egunez, eta bilduta nuen material guztiarekin hasi ginen. Gironan egin genuen bigarren egonaldia. Absurdua ere lan egiteko baliatu dugu.

Lurra funtsezko elementua duzue lan honetan. Zerbait organikoa nahi nuen. Lurra oso eszenikoa da. Nire gurasoak Gaztelakoak dira eta gogoan nituen lur sail horiek.

Pako Revueltas aktorearen kanpoko begirada izan duzue lagungarri.

Nire egoera pertsonalaz hitz egiten duen pieza honek azkenean, sormen prozesuaren



Natxo Monterok elektrikari izateko ikasketak burutu bazituen ere, Santutxuko Gaztedi taldean ekin zion dantzari.

Oraindik ere euskal dantza pausoak nahasten ditu mugimendu garaikideen artean, bere hastapenen keinu modura. Gerora, dantzari garaikide ezagunekin aritu izan da lanean, hala nola, Matxalen Bilbao, Cristina Quijera edota Idoia Zabaletarekin. Hainbat urte eman ditu atzerrian, besteak beste Lisboan, Bartzelonan, Bruselan eta Frantzian.



inguruan murgiltzera eramantzen gaitu. Pakok asko daki eszenaz eta materialari forma eman dio, kaosa antolatu du. Bestetik, Arriagako dataren presioa hor zegoen, jendea dantza formalak ikustera doa, ez proposamen berritzaileak edota apurtzaileak. Sufritu egin dut lan honekin. Prozesu gogorra izan da, eta nik ez dut ikasi nahi sufritumendutik, porrota ere aukeratzen onartu dut.

Pieza hau dantzatik harago doa, ezta?

Publikoaren egarria asetzea zaila da. Ikusleek begiratzea nahi nuen, baina nola? Gailu elektronikoei begira goaz denok. Horregatik, irudiak proposatzen dizkiet ikusleei, bakoitzak nahi duen irakurketa egin dezala. bederatzi hilabeteko prozesua izan da eta lanak bide asko hartu ditu.

Hutsetik sortzen dena oso nekoso da.

Diziplina ugari uztartu duzu, sinbolismoz betetako mugimenduak tarteko.

Ez dakit nire dantza edo antzerkia den... Gorputzak berebiziko garrantzia du niretzat. Gorputza dut abiapuntua, baina ez dut katalogatu nahi, proposamen eszenikoa dela esango nuke. Jendeak erabaki dezala zer den. Dantza munduan oso lerro markatua nuen baina hortik ere alde egin nahi nuen. Aldaketak maite ditut. ■

